



BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA

Legezko Gordailua / Depósito Legal BI-1958-1 - ISSN. 1134-8720

BAO. 71. zk. 2007, apirilak 12. Osteguna

— 10233 —

BOB núm. 71. Jueves, 12 de abril de 2007

Laburpena / Sumario

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa / Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Batzar Nagusiak / Juntas Generales

Martiaren 27ko 7/2007 FORU-ARAU, enpresak deslokalizatzen direnean Foru Sektore Publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzkoa.	10235	NORMA FORAL 7/2007, de 27 de marzo, de recuperación de ayudas del Sector Público Foral en el supuesto de deslocalizaciones empresariales.
Martiaren 27ko 6/2007 FORU-ARAU, Sozietateen Gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Araua eta zergen arloko beste foru arau batzuk aldatzekoa.	10239	NORMA FORAL 6/2007, de 27 de marzo, por la que se modifica la Norma Foral 3/1996, de 26 de junio, del Impuesto sobre Sociedades y otras normas forales de carácter tributario.

Foru Aldundia / Diputación Foral

Ingurumen Saila	10278	Departamento de Medio Ambiente
«Bakiorako hornidura Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak Mungian duen saretik» proiektua onestea.	10278	Aprobación del proyecto de «Abastecimiento a Bakio desde la red del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia en Mungia».
Kultura Saila	10278	Departamento de Cultura
Kultura Sailaren 1540/2007 FORU AGINDUA, martxoaren 29koa, «Ertibil-Bizkaia 2007» ikusizko arteen erakusketa ibiltaria osatzeko aukeraturako artelanei sariak ematen dizkiena.	10278	ORDEN FORAL 1540/2007, de 29 de marzo, del Departamento Foral de Cultura, por la que se conceden premios a las obras seleccionadas para configurar la Muestra Itinerante de Artes Visuales «Ertibil-Bizkaia 2007».
Herri Administrazio Saila	10285	Departamento de Administración Pública
Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako zenbait testu gaztelaniatik euskara eta euskaratik gaztelaniara itzultzeko kontratuaren lizitazio iragarkia.	10285	Anuncio de licitación del contrato de traducción del castellano al euskera y del euskera al castellano de diversos textos generados por la Diputación Foral de Bizkaia.
Foru Aldundiak 2007ko martxoaren 26an, lehenengo deialdian eta ohiko bilkuran, hartutako erabakien laburpena.	10286	Extracto de los acuerdos adoptados por la Diputación Foral de Bizkaia en la reunión ordinaria celebrada, en primera convocatoria, el día 26 de marzo de 2007.
Ogasun eta Finantza Saila	10288	Departamento de Hacienda y Finanzas
929/2007 FORU AGINDUA, apirilaren 2koa; honen bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuko 2007. urteko zeinuak, indizeak eta moduluak onetsi dira.	10288	ORDEN FORAL 929/2007, de 2 de abril, por la que se aprueban los índices y módulos del régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido para el año 2007.

Foru Enpresak eta Foru Erakundeak / Empresas y Organismos Forales

Lantik, S.A.	10326	Lantik, S.A.
2007ko Udal Hauteskundeetan eta Udal Hauteskundeetan emaitzak aurreikusteko, biltzeko eta zabaltzeko zerbitzuen kontratuaren adjudikazioaren iragarkia.	10326	Anuncio de la adjudicación del contrato para la prestación de servicios de previsión, recogida y transmisión de los resultados de las Elecciones Municipales / Forales a Juntas Generales 2007.

II. Atala / Sección II

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioa / Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia

Bilboko Udala	10327	Ayuntamiento de Bilbao
Portugaleteko Udala	10328	Ayuntamiento de Portugalete
Galdakaoko Udala	10333	Ayuntamiento de Galdakao
Zeanuriko Udala	10333	Ayuntamiento de Zeanuri
Mallabiko Udala	10335	Ayuntamiento de Mallabia
Bermeoko Udala	10336	Ayuntamiento de Bermeo
Arakaldoko Udala	10336	Ayuntamiento de Arakaldo
Iurretako Udala	10337	Ayuntamiento de Iurreta
Amorebieta-Etxanoko Udala	10337	Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano
Sestaoko Udala	10338	Ayuntamiento de Sestao
Arrigorriagako Udala	10339	Ayuntamiento de Arrigorriaga
Trapagarango Udala	10340	Ayuntamiento de Valle de Trápaga
Elorrioko Udala	10344	Ayuntamiento de Elorrio

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Batzar Nagusiak / Juntas Generales

Martiaren 27ko 7/2007 FORU-ARAU, enpresak deslokalizatzen direnean Foru Sektorre Publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzkoa.

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2007.eko martiaren 27ko osoko bilkuran, martiaren 27ko 7/2007 Foru-Araua, enpresak deslokalizatzen direnean Foru Sektorre Publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzkoa onetsi dutela eta nik neuk aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dudala jakinarazten dut, aplikatu zaien beharra duten hiritar, norbanako eta agintari guztiek zaindu eta zainaraz dezaten.

Bilbon, bi mila eta zazpigarreneko martiaren hogetazortzian.

Herri Administrazioaren foru diputatua,
IÑAKI HIDALGO GONZALEZ

NORMA FORAL 7/2007, de 27 de marzo, de recuperación de ayudas del Sector Público Foral en el supuesto de deslocalizaciones empresariales.

Hago saber que las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado en Sesión Plenaria de fecha 27 de marzo de 2007, y yo promulgo y ordeno la publicación de la Norma Foral 7/2007, de 27 de marzo, de recuperación de ayudas del Sector Público Foral en el supuesto de deslocalizaciones empresariales, a los efectos que todos los ciudadanos, particulares y autoridades, a quienes sea de aplicación, la guarden y la hagan guardar.

En Bilbao, a veintiocho de marzo de dos mil siete.

El diputado foral de Administración Pública,
IÑAKI HIDALGO GONZALEZ

MARTIAREN 27ko 7/2007 FORU-ARAU, ENPRESAK DESLOKALIZATZEN DIRENEAN FORU SEKTORRE PUBLIKOAK LAGUNTZAK BERRESKURATZEARI BURUZKOA

HITZAURREA

Bizkaiko Foru Aldundiarentzat bereziki garrantzitsua da ekonomia-sustapeneko politika publiko egokiak diseinatu eta garatzea, Bizkaiko ingurune sozioekonomikoaren bilakaerari lotutako politikak, aberastasuna sortzen eta Lurralde Historikoko pertsonen bizi kalitatea hobetzen lagunduko dutenak.

Ilido horretan lehenetsuneko arreta eman izan zaie enpresei, batez ere enpresa txiki eta ertainei eta enpresak sortzen dituzten pertsoneri, bai ekonomia-erregulaketaren garaiko unerik latzereetan eta bai azken urteotan ere, adierazle sozioekonomikoek hazkunde ekonomiko etengabekoa erakusten diguten sasoiari.

Gaurko ingurune ekonomikoa erabat aldatuta dago orain dela hamar urtekoaren aldean. Globalizazioa, aldatuaren abiadura, balioa sortu beharra eta I+G politiken garrantzia direla-eta, besteak beste, Bizkaiko enpresek enpresa-kudeaketarako eredu berriak sortu behar dituzte, enpresen arteko lankidetzaren prozesuei ekin behar diete euren tamaina handitzeko, eta kokapen estrategiko berriak aztertzea behar dituzte, euren burua maila globaleko hornitzaile gisa finkatu ahal izateko; azken batean estrategia berriak behar dituzte, gero eta lehiakorragoak izan daitezkeen, garatzeko eta balioa sortzeko ahalmena areagotu dezaten eta lanpostu gehiago eta kualifikatuagoak sor ditzaten.

Bizkaiko Foru Aldundiak bere ekonomia-sustapeneko politikak inguruabar berri horiei egokitu dizkie. Berrikuntzari eta kalitateko lanpostuen sorrerari eta iraupenari bultzada ematen ahalegintzen da, eta lurralde osoan gizarte moderno eta lehiakorra sortu nahi du, baina aldi berean bidezkoa, solidarioa eta iraunkorra. Enplegu egonkorra eta birbanatu daitezkeen aberastasuna sortu nahi ditu Bizkaiko lurraldeko gizartearen beharrezan asetzeko.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak enpresen erantzukizun soziala sustatzen du, bai kanpora begira, hau da, enpresak kanpoko solaskideekin, bere inguruko gizartearekin eta ingurumenarekin dituen harremanei begira, zentzu zabalean, eta bai barrura begira, izan ere, enpresaren errentagarritasun soiletik harantzago enpresa-kudeaketaren funtsezko alderdiak zaindu behar baitira, hala nola giza baliabideak, laneko osasuna eta segurtasuna, langileen prestakuntza eta parte-hartzea, kalitatearen kudeaketa edo ingurumen-kudeaketa.

NORMA FORAL 7/2007, DE 27 DE MARZO, DE RECUPERACIÓN DE AYUDAS DEL SECTOR PÚBLICO FORAL EN EL SUPUESTO DE DESLOCALIZACIONES EMPRESARIALES

PREAMBULO

La Diputación Foral de Bizkaia concede especial importancia al diseño y desarrollo de políticas públicas de promoción económica adecuadas a la evolución del entorno socio-económico de Bizkaia y que contribuyan a la creación de riqueza y la mejora de la calidad de vida de las personas del Territorio Histórico.

En este marco, la empresa, y en especial las pequeñas y medianas empresas y las personas emprendedoras, han sido objeto de atención prioritaria, tanto en los momentos más duros de la reconversión económica, como en los últimos años, en los que los indicadores socio-económicos nos muestran una situación de crecimiento económico sostenido.

El entorno económico actual ha cambiado sustancialmente respecto al existente hace una década, fenómenos como la globalización, la velocidad de cambio, la exigencia de generar valor, el protagonismo de las políticas de I+D, entre otros, exigen a las empresas de Bizkaia nuevos modelos de gestión empresarial, acometer procesos de cooperación empresarial para aumentar su dimensión, estudiar nuevas localizaciones estratégicas que les permitan posicionarse como proveedores a nivel global; en definitiva, nuevas estrategias para ser cada vez más competitivas, con más capacidad de desarrollo y de generación de valor y con más empleos y de mayor cualificación.

La Diputación Foral de Bizkaia ha adaptado sus políticas de promoción económica a estas nuevas circunstancias, concentrando sus esfuerzos en el impulso a la innovación y a la creación y mantenimiento de empleos de calidad, asumiendo el reto para todo el territorio de crear una sociedad moderna y competitiva así como justa, solidaria y sostenible, y de crear empleo estable y riqueza que pueda ser redistribuida para satisfacer las necesidades sociales del territorio de Bizkaia.

Asimismo, la Diputación Foral de Bizkaia impulsa la responsabilidad social empresarial, tanto en su dimensión externa, referida a las relaciones de la empresa con interlocutores externos y su entorno social y medioambiental en sentido amplio, como en su dimensión interna, en la que, más allá de la mera rentabilidad empresarial, se contemplan aspectos clave de la gestión empresarial como los recursos humanos, la salud y la seguridad laboral, la formación y participación de los trabajadores, la gestión de la calidad o la gestión medioambiental.

Enpresek, langileak ordezkatzen dituzten erakundeekin eta eskualdeko edo tokian tokiko agintariekin lankidetzan, portaera arduratsua garatu behar dute, eskualde-garapen orekatua eta kalitateko enplegu iraunkorraren sorrera helburu.

Aberastasunaren sorreran enpresek betetzen duten eginkizuna ezinbestekoa dela aitorturik, Bizkaiko Foru Aldundiak uste du gizarte moderno eta lehiakorra eta aldi berean bidezko, solidario eta iraunkorra sortzeko hartu duen konpromisoan beste urrats bat egin behar duela aurrera, alegia, mekanismo egokien bidez aintzakotzat hartu behar dituela erantzukizun soziala eta lurraldearen etorkizuneko ongizatearekiko konpromisoa euren gain hartzen dituzten enpresak eta, ostera, enpresen jokaera zigortu behar duela Bizkaian dituzten jarduerak bertan behera utzi eta euren jarduera lurraldetik kanpora eramaten dutenean, horrelako erabakiak bideragarritasun ekonomikoari lotutako arrazoen bidez justifikatu gabe; hain zuzen ere prozesu horri «enpresen deslocalizazioa» deritzo.

Egia da, enpresek euren jarduerak lekuz aldatzea erabaki dezakete hainbat arrazoiengatik eta arrazoi horietariko batzuek ez dute inolako zerikusirik produktibitatearekin, eraginkortasunarekin edo bideragarritasun ekonomikoarekin. Baina ezin da alde batera utzi deslocalizazio horiek lanpostu askoren galera eragin dezaketela eta zailtasun ekonomiko handiak sortu udalerrri batean, eskualde batean eta are lurralde zabalagoan ere.

Bizkaiko Foru Aldundiak neurri sail handia antolatu du enpresei laguntzeko eta neurri horiei buruzko arautegiak bermatu egin behar du, ez bakarrik lagundutako jarduera egin egingo dela, emandako laguntzaren xedea beteko dela eta hori guztia behar bezala frogatuko dela, baizik eta, horretaz gainera, baita jarduera horrek Bizkaiko garapenerako ekarpen eraginkorra eta iraunkorra egingo duela ere. Laguntza publikoek lanpostu iraunkorrak sortzen lagundu behar dute eta ez dute biderik eman behar jarduera ekonomikoak deslocalizatzeko.

Europar Batasuneko beste eskualde batzuetan ere arazo berbera dute. Horregatik, Europako erakundeak neurri juridikoak aztertzen ari dira Europako Erkidegoak finantzatzan dituen enpresek ez ditzaten euren jarduerak deslocalizatu aurrez ezarritako epe jakin bat igaro arte; Batzordeak proposamen bat aurkeztu du, Egitura Funtsen erreformaren esparruan eginga, eta horren xedea da Europar Batasunak enpresei emandako laguntzak berreskuratzea, laguntza jaso eta zortzi urte igaro aurretik enpresak bere jarduerak deslocalizatzeko baldin baditu.

Era berean Europako Parlamentuak eskatu du enpresa horiek Egitura Funtsetatik edo estatu-laguntzetatik kanpo gera daitezela deslocalizazioa egiten dutenetik zazpi urte igaro arte.

Europar Batasunak bezala Bizkaiko Foru Aldundiak ere beharrezkotzat jotzen du enpresei arauak ezartzea, baliabide publikoak itzuli beharra izan dezaten bidezko arrazoirik gabe deslocalizazioak egiten dituztenean, hau da, Bizkaiko Lurralde Historikoan duten jarduera bertan behera utzi edo nabarmen murrizten dutenean, aldi berean jarduera hori Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo garatzeko.

1. artikulua.—Xedea eta aplikazio eremu subjektibo eta objektiboa

1. Foru arau honen xedea da enpresen deslocalizazioak izango dituen ondorioak arautzea, Bizkaiko foru sektore publikoak ematen dituen laguntzei dagokienez. Horrela bermatu egin nahi da laguntza horiek ekarpen eraginkorra eta iraunkorra egingo diotela Bizkaiko Lurralde Historikoaren garapenera.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoan lantokiren bat eduki eta Foru Sektore Publikoaren laguntzak jaso dituzten enpresei foru arau hau aplikatuko zaie, hurrengo artikuluan azaltzen diren kasuetan.

Enpresaren arloan diharduten fundazio eta elkartei ere foru arau hau aplikatuko zaie.

3. Foru arau honen ondorioetarako, foru sektore publikoaren laguntzak dira maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren babesean

Las empresas deben desarrollar, en colaboración con las organizaciones que representan a las trabajadoras y trabajadores y con las autoridades regionales y locales, un comportamiento responsable orientado hacia un desarrollo regional equilibrado y a la creación de empleo de calidad y duradero.

La Diputación Foral de Bizkaia, desde el reconocimiento al papel imprescindible que juegan las empresas en la generación de riqueza, entiende que el compromiso que ha asumido de crear una sociedad moderna y competitiva así como justa, solidaria y sostenible le exige dar un nuevo paso y articular mecanismos que reconozcan a las empresas socialmente responsables y comprometidas con el bienestar futuro del Territorio en el que se encuentran ubicadas y penalice aquellas actuaciones empresariales que conlleven el desmantelamiento de sus actividades en Bizkaia y el traslado de su actividad fuera del Territorio, sin razones de viabilidad económica que justifiquen tales decisiones, proceso conocido como «deslocalización empresarial».

Aún reconociendo que las empresas pueden optar por deslocalizar sus actividades en función de numerosas motivaciones, de las cuales algunas no están en absoluto relacionadas con cuestiones de productividad, eficacia o viabilidad económica, no se puede dejar de constatar que dichas deslocalizaciones pueden provocar la supresión de numerosos puestos de trabajo y generar dificultades económicas importantes en el ámbito local, comarcal o incluso regional.

La normativa que regula el amplio abanico de medidas de apoyo a las empresas puesto en marcha por la Diputación Foral de Bizkaia debe garantizar no solo, la realización de la actividad apoyada, el cumplimiento de la finalidad que determina la ayuda concedida y su adecuada justificación, sino que también debe garantizar su contribución efectiva y sostenible al desarrollo de Bizkaia. Las ayudas públicas deben contribuir a la creación de puestos de trabajo duraderos y no deben facilitar la deslocalización de actividades económicas.

Esta problemática es común a otras regiones de la Unión Europea, lo que ha llevado a las Instituciones Europeas a estudiar la puesta en marcha de medidas jurídicas dirigidas a garantizar que las empresas que reciben financiación comunitaria no deslocalicen sus actividades durante un período previamente determinado; para ello la Comisión ha presentado una propuesta formulada en el marco de la reforma de los Fondos Estructurales, destinada a recuperar las ayudas concedidas por la Unión Europea a aquellas empresas que deslocalicen sus actividades en un plazo de ocho años a partir de la fecha de concesión de la ayuda.

Asimismo, el Parlamento Europeo ha solicitado que estas empresas también queden excluidas, de cara al futuro, de los Fondos Estructurales o las ayudas estatales durante un período de siete años a partir de la fecha en que se realizó la deslocalización.

En la misma línea planteada por la Unión Europea la Diputación Foral de Bizkaia entiende necesaria la regulación de la obligación de devolución de los recursos públicos que hubieran recibido aquellas empresas que proceden a su deslocalización injustificada mediante el cese o reducción significativa de su actividad en el Territorio Histórico de Bizkaia y su simultáneo desarrollo fuera del mismo.

Artículo 1.—Objeto y ámbito de aplicación subjetivo y objetivo

1. La presente Norma Foral tiene por objeto la regulación de los efectos que se producen en relación a las ayudas otorgadas por el Sector Público Foral de Bizkaia como consecuencia de la deslocalización empresarial con la finalidad de garantizar la contribución efectiva y sostenible de dichas ayudas al desarrollo del Territorio Histórico de Bizkaia.

2. La presente Norma Foral será aplicable a las empresas con centro de trabajo en el Territorio Histórico de Bizkaia que hayan obtenido ayudas otorgadas por el Sector Público Foral y que se encuentren en alguno de los supuestos a que se refiere el artículo siguiente.

Asimismo, será de aplicación a las fundaciones y asociaciones que desarrollen su actividad en el ámbito empresarial.

3. A los efectos de la presente Norma Foral, se entienden por ayudas del Sector Público Foral las subvenciones concedidas

ematen diren diru-laguntzak (foru arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri du) eta foru sektore publikoko beste erakunde batzuek ematen dituzten laguntzak, euren era juridikoa edozein izanda ere. Bestalde, foru sektore publikotzat joko da Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauak hala definitu duena.

4. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, foru arau honen aplikazio eremutik kanpo geratuko dira enpresetan euskararen erabilera sustatzeko diru-laguntzak, langileen prestakuntzarako diru-laguntzak eta 6.000,00 €-tik beherakoak, arauz zehazten den moduan.

2. artikulua.—*Enpresen deslocalizazioa*

1. Foru arau honen ondorioetarako, enpresa bat deslokali-zatu egin dela ulertuko da bi inguruabar hauek batera gertatuz gero:

- 1) Enpresak Bizkaiko Lurralde Historikoan duen jarduera bertan behera uztea edo nabarmen murriztea.
- 2) Aldi berean, edo hori gertatu aurreko nahiz osteko hiru urteetan, Bizkaiko Lurralde Historikoan jarduera bertan behera utzi duen erakundeak berak jarduera hori Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpoko beste leku batean garatzea, edo beste erakunde batek garatzea, baldin eta harekin Merkataritzaren Kodeko 42. artikuluan aipatzen diren harremanak baditu, edo hari lotuta badago Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 16. artikuluan azaltzen den moduan.

2. Jarduera bertan behera geratu dela ulertuko da bai erakunde desegiten denean eta bai, desegin ez arren, Bizkaiko Lurralde Historikoan dituen produkzio instalazio guztiak edo horietariko batzuk ixten dituzenean ere.

3. Jarduera nabarmen murriztu dela ulertuko da baldin eta, erakundeak Bizkaiko Lurralde Historikoan dituen lanpostuen murrizketaren ondorioz, murrizketaren aurretik izandako langileen kopurua erdira baino gutxiagora jaisten bada.

Hori dela eta, goiko 1. idatz-zatian aipatutako inguruabarrak gertatu aurreko bi urteetan erakundeak Bizkaiko Lurralde Historikoko lantokietan izandako langileen batez besteko kopurua hartuko da kontuan.

4. Enpresak Bizkaiko Lurralde Historikoan egin izan duen jarduera lurralde horretatik kanpoko leku batean garatzen ari dela ulertuko da bai kanpoko leku horretan jarduera abian jartzen bada, bai kanpoko leku horretan lehendik zegoen enpresa-jarduera hazi egiten bada Bizkaian bertan behera utzi den edo murriztu den heinean.

5. Salbuespenez, behar bezala egiaztatutako kasuetan, enpresa-deslocalizaziorik ez dagoela ulertu ahal izango da baldin eta artikuluko honetako 1. idatz-zatian azaldutako inguruabarrak ezinbestean gertatzen badira, edo horiek gertatzearekin batera erakundeak, zuzenean edo berarekin Merkataritzaren Kodeko 42. artikuluan aipatutako harremanak dituen beste erakunde baten bitartez edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 16. artikuluan ezarritako moduan berari lotuta dagoen beste erakunde baten bitartez, Bizkaian enpresa-jarduera berriak abian jartzen baditu eta, horrenbestez, kendu dituen adina lanpostu sortzen baditu, gutxi gorabehera.

3. artikulua.—*Enpresaren konpromisoa*

Diru-laguntzak emateko oinarri-arauetan, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen

al amparo de lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, que regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y demás ayudas concedidas por otras entidades del Sector Público Foral con independencia de la forma jurídica que adopten. Asimismo, se entiende por Sector Público Foral el definido como tal en la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria.

4. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, quedan excluidas del ámbito de aplicación de esta Norma Foral las subvenciones destinadas a la promoción del uso del euskera en las empresas, a la formación de las personas trabajadoras y aquellas cuyo importe sea inferior a 6.000,00€, en los términos que se determinen reglamentariamente.

Artículo 2.—*Deslocalización empresarial*

1. A los efectos de la presente Norma Foral se entiende que se produce una deslocalización empresarial cuando concurren las dos siguientes circunstancias:

- 1) Que se produzca el cese o una reducción significativa de la actividad de la empresa en el Territorio Histórico de Bizkaia.
- 2) Que simultáneamente o en el plazo de los tres años inmediatos anteriores o posteriores al momento en que se produzca cualquiera de las situaciones anteriores, se desarrolle en otro lugar fuera del Territorio Histórico de Bizkaia la misma actividad que desarrollaba la empresa en el citado Territorio Histórico, por parte de la misma entidad que hubiera cesado en su actividad o por medio de otra entidad que guarde con aquélla alguna de las relaciones a que se refiere el artículo 42 del Código de Comercio o que se encuentre vinculada con la misma en los términos establecidos en el artículo 16 de la Norma Foral 3/1996, de 26 de junio, del Impuesto sobre Sociedades.

2. Se entiende que se produce el cese en la actividad tanto en los supuestos de disolución de la entidad como en aquellos otros en los que, sin producirse esa circunstancia, se produce el cierre de la totalidad o parte de las instalaciones productivas que la entidad mantuviera en el Territorio Histórico de Bizkaia.

3. Se entiende que se produce una reducción significativa de la actividad cuando se produzca una reducción en el empleo de la entidad en el Territorio Histórico de Bizkaia que suponga, al menos, la reducción del personal empleado en el mismo a menos de la mitad del que tuviera con antelación a la reducción.

A estos efectos, se atenderá al promedio de plantilla de la entidad en el plazo de los dos años inmediatos anteriores al momento en que concurren las circunstancias contenidas en el apartado 1 anterior, cuyo centro de trabajo radique en el Territorio Histórico de Bizkaia.

4. Se entiende que se desarrolla en otro lugar fuera del Territorio Histórico de Bizkaia la misma actividad que desarrollaba la empresa en el citado Territorio tanto en el caso de inicio de actividad en dicho lugar como cuando se produzca en el mismo un incremento del nivel de actividad empresarial que sea proporcional al que haya dejado de ejercerse o se haya reducido significativamente en Bizkaia.

5. En supuestos excepcionales y debidamente justificados, se podrá entender que no existe deslocalización empresarial siempre que simultáneamente a la concurrencia de las circunstancias contenidas en el apartado 1 de este artículo, la entidad directamente o por medio de otra entidad que guarde con aquélla alguna de las relaciones a que se refiere el artículo 42 del Código de Comercio o que se encuentre vinculada con la misma en los términos establecidos en el artículo 16 de la Norma Foral 3/1996, de 26 de junio, del Impuesto sobre Sociedades, inicie la realización de nuevas actividades empresariales en Bizkaia que den como resultado la creación de un número similar de puestos de trabajo a los suprimidos, o que se produzca por circunstancias de fuerza mayor.

Artículo 3.—*Compromiso empresarial*

El compromiso de no incurrir en deslocalización empresarial formará parte del contenido mínimo necesario de las bases regu-

duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 16. artikuluan aipatzen diren horietan, enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa jaso behar da gutxieneko edukiaren barruan, eta beste horrenbeste egin behar da foru sektore publikoko beste erakunde batzuen laguntzak emateko eragiketak formalizatzen dituzten negozio juridikoetan.

4. artikulua.—*Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa*

1. Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren erabaki baten bidez egingo da, laguntza eman duen foru sailaren edo erakundearen proposamenez, eta foru arau hone-tako 2. artikuluan aipatutako inguruabarrak gertatu ondoko lau urteko epean abiarazi ahalko da.

Enpresa baten deslokalizazioaren deklarazioan foru sail batek edo foru sektore publikoko erakunde batek baino gehiagok esku hartzen dutenean, deklaraziorako prozedura bakarra egingo da, araudi bidez zehazten den moduan.

2. Prozeduraren hasieran, laguntza eman duen saileko edo erakundeko organo eskudunak txostena egingo du, foru arau hone-tako 2. artikuluan azaldutako inguruabarrak gertatu direla justifikatzeko. Txostena interesatuari jakinaraziko zaio.

Interesatuari egutegiko hamabost eguneko epea emango zaio bere eskubidearen aldeko alegazioak egiteko.

3. Epe hori amaiturik, Bizkaiko Foru Aldundiari enpresaren deslokalizazioa deklaratzeko proposamena aurkeztuko zaio, bidezkoa bada.

4. Prozedurari amaiera emateko, Bizkaiko Foru Aldundiak enpresaren deslokalizazioa deklaratzeko erabakia hartuko du eta interesatuari jakinaraziko zaio.

Erabaki horretan beren beregi adieraziko da zein egunetan gertatu den enpresaren deslokalizazioa, hurrengo artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako egun hori kontuan har dadin.

5. artikulua.—*Jasotako laguntza itzultzea*

1. Enpresaren deslokalizazioa deklaratu gero, enpresak itzuli egin beharko ditu aurreko zortzi urteetan jasotako diru kopuruak, kopuru bakoitza jaso zuenetik deklarazioaren egunera arte sortutako berandutza-korrituekin batera.

Deklarazio horren ondorioz, gainera, deslokalizazioa deklaratu zaion enpresak eta haren bazkideek ezin izango dute foru sektore publikoko laguntzarik jaso zortzi urtean, deklarazioaren egunetik aurrera.

2. Diru-laguntzak itzuli behar direnean, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko II. tituluan xedatutakoa aplikatuko da. Gainerako laguntzak itzuli behar direnean, kasuan kasuko harremanari edo negozio juridikoari buruzko arauak beteko dira.

3. Foru sektore publikoak ematen dituen diru-laguntzaz beste laguntzei dagokienez, Bizkaiko Foru Aldundiak laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko prozedura onetsiko du. Oro har, merkaturko balioaren eta dena delako negozio juridikoan hitzartutako balioaren arteko aldea izango da.

6. artikulua.—*Enpresa-deslokalizazioari buruzko ezagutza*

Bizkaiko Foru Aldundiak, enpresak deslokalizatzeko prozesuei buruzko ezagutza hobetzearren, ikerketa lerro egonkorra antolatuko du hauxe ikertzeko: globalizazioak tokiko eta eskualdeko enpresa-sarean duen eraginari eta Europako eta, bereziki, Bizkaiko enpresen deslokalizazio prozesuei buruzko ezagutza teorikoan eta praktikokoan egin diren aurrerapenak.

ladoras de la concesión de las subvenciones, a que se refiere el artículo 16 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, que regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, así como de los negocios jurídicos por los que se formalicen las operaciones en las que se concedan cualquier ayuda por otras entidades del Sector Público Foral.

Artículo 4.—*Declaración de la deslocalización empresarial*

1. La declaración de la deslocalización empresarial se realizará por medio de Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia, a propuesta del Departamento Foral o de la entidad concedente de la ayuda y podrá iniciarse en el plazo de los cuatro años siguientes a la concurrencia de las circunstancias establecidas en el artículo 2 de esta Norma Foral.

En el supuesto de que existan varios Departamentos Forales o entidades del Sector Público Foral implicadas en la declaración de deslocalización empresarial de una empresa se desarrollará un único procedimiento declarativo en los términos que se determine reglamentariamente.

2. El procedimiento se iniciará mediante informe preceptivo del órgano competente del Departamento o de la entidad concedente de la ayuda que justifique la concurrencia de las circunstancias establecidas en el artículo 2 de esta Norma Foral que se notificará al interesado.

Se concederá un plazo de alegaciones de quince días naturales al interesado para que realice cuantas convenga a su derecho.

3. Concluido el plazo anterior, se elevará propuesta, en su caso, a la Diputación Foral de Bizkaia para la declaración de deslocalización empresarial de la entidad correspondiente.

4. El procedimiento concluirá mediante Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se declare la deslocalización empresarial que será notificado al interesado.

En el Acuerdo se establecerá expresamente la fecha en la que se entienda producida la deslocalización empresarial, que será la que deba ser tenida en cuenta a los efectos de lo dispuesto en el artículo siguiente.

Artículo 5.—*Reintegro de la ayuda recibida*

1. La declaración de deslocalización empresarial supondrá la obligación para la empresa de proceder al reintegro de las cantidades percibidas en los ocho años anteriores a la misma, junto con el interés de demora correspondiente desde el momento de la recepción de cada una de ellas hasta la fecha de dicha declaración.

Dicha declaración producirá, asimismo, la imposibilidad para las empresas cuya deslocalización haya sido declarada y para sus socios de obtener ayudas otorgadas por el Sector Público Foral durante un período de ocho años a partir de la fecha de la declaración.

2. En el supuesto de reintegro de subvenciones, será de aplicación lo dispuesto en el Título II de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, que regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. En los demás casos de ayuda se estará a lo dispuesto por la normativa reguladora de la relación o negocio jurídico de que se trate.

3. En relación con las ayudas concedidas por el Sector Público Foral, distintas de las subvenciones, la Diputación Foral de Bizkaia aprobará el procedimiento por el que se cuantificará el importe de la ayuda que, con carácter general, corresponderá a la diferencia entre el valor de mercado y el convenido en el negocio jurídico de que se trate.

Artículo 6.—*Conocimiento sobre el fenómeno de la deslocalización empresarial*

La Diputación Foral de Bizkaia, con el fin de mejorar el conocimiento sobre los procesos de deslocalización empresarial, articulará una línea de investigación estable sobre los avances en el conocimiento teórico y práctico relativo a los efectos de la globalización en el tejido empresarial local y regional y sobre los procesos de deslocalización empresarial en Europa y, en particular, en Bizkaia

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.—Indarrean jartzea

Foru arau honek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik izango du indarra.

Bigarrena.—Araugintzarako gaikuntza

Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari baimena ematen zaie foru arau hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Bilbon, 2007.eko martiaren 27an.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,
NEKANE ALONSO SANTAMARIAK

Batzar Nagusietako Lehendakariak,
ANA MADARIAGA UGARTEK

(I-654)

Martiaren 27ko 6/2007 FORU-ARAU, Sozietateen Gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Araua eta zergen arloko beste foru arau batzuk aldatzekoa.

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2007.eko martiaren 27ko osoko bilkuran, martiaren 27ko 6/2007 Foru-Araua, Sozietateen Gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Araua eta zergen arloko beste foru arau batzuk aldatzekoa onetsi dutela eta nik neuk aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dudala jakinarazten dut, aplikatu zaien beharra duten hiritar, norbanako eta agintari guztiek zaindu eta zainaraz dezaten.

Bilbon, bi mila eta zazpigarreneko martiaren hogetazortzian.

Herri Administrazioaren foru diputatua,
IÑAKI HIDALGO GONZALEZ

**MARTIAREN 27KO 6/2007 FORU-ARAU,
SOZIEATEEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO EKAINAREN 26ko
3/1996 FORU ARAUA ETA ZERGEN ARLOKO BESTE FORU ARAU
BATZUK ALDATZEOA**

HITZAURRERA

Euskal Autonomia erkidegoarekin dagoen Ekonomi Itunak lurralde historikoetako erakunde eskudunei bakoitzak bere zerga-sistema ezarri, zaindu eta araupetzeko gaitasuna aitortzen die, eta Sozietateen gaineko Zerga araudi autonomoa duen itundutako zerga gisa eratzen du; horri dagokionez, Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauak arautuko du Lurralde Historiko horretako araudiaren pean dauden enpresen fiskalitatea.

Bestalde, eta urteotan zehar, Europako Batzordeak eta, batez ere, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak lagundu dute, bate-tik, doktrina garatzen, hain zuzen ere, estatu kideetako zerga arloko agintariek enpresen zuzeneko tributazioaren inguruan dituzten arauak Europar Batasuna eratzeko Itunean jasotzen diren oinarritzko askatasunak errespetatuz duten gaitasunaren ingurukoa, eta, bestetik, zerga-politiken arteko koordinazioa sustatzen, estatu kide bakoitzeko zerga-sistemetatik ondoriozta daitekeen zergen arloko lehia kaltegarria mugatzearen.

Orobat, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundeek Sozietateen gaineko Zerga berezkoak eta lurralde erkidean indarrean daudenak baino beste neurri batzuen bidez arautzeko duten eskumena, betiere Ituneko 87. artikuluan ezartzen dena errespetatuz, indartu egin da, autonomia nahikoa daukaten estatuaz azpiko entitateek neurri orokorrak ezartzeko duten gaitasuna berretsi egin baita, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak 2006ko irailaren 6an emandako epaian xedatutakoarekin bat. Epai hori C-88/03 gaien (Portugalgo Errepublikari Europako Batzordearen aurka) eman zuten Auzitegiak.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.—Entrada en vigor

La presente Norma Foral entrará en vigor el día de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Segunda.—Habilitación normativa

Se autoriza a la Diputación Foral y al Diputado Foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución de la presente Norma Foral.

En Bilbao, a 27 de marzo de 2007.

La Secretaria Primera de las Juntas Generales,
NEKANE ALONSO SANTAMARIA

La Presidenta de las Juntas Generales,
ANA MADARIAGA UGARTE

(I-654)

NORMA FORAL 6/2007, de 27 de marzo, por la que se modifica la Norma Foral 3/1996, de 26 de junio, del Impuesto sobre Sociedades y otras normas forales de carácter tributario.

Hago saber que las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado en Sesión Plenaria de fecha 27 de marzo de 2007, y yo promulgo y ordeno la publicación de la Norma Foral 6/2007, de 27 de marzo, por la que se modifica la Norma Foral 3/1996, de 26 de junio, del Impuesto sobre Sociedades y otras normas forales de carácter tributario, a los efectos que todos los ciudadanos, particulares y autoridades, a quienes sea de aplicación, la guarden y la hagan guardar.

En Bilbao, a veintiocho de marzo de dos mil siete.

El diputado foral de Administración Pública,
IÑAKI HIDALGO GONZALEZ

**NORMA FORAL 6/2007, DE 27 DE MARZO,
POR LA QUE SE MODIFICA LA NORMA FORAL 3/1996,
DE 26 DE JUNIO, DEL IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES
Y OTRAS NORMAS FORALES DE CARÁCTER TRIBUTARIO**

PREAMBULO

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco reconoce a las instituciones competentes del Territorio Histórico de Bizkaia la capacidad para mantener, establecer y regular su régimen tributario, y configura el Impuesto sobre Sociedades como un tributo concertado de normativa autónoma, siendo la Norma Foral 3/1996, de 26 de junio, del Impuesto sobre Sociedades, la que regula la fiscalidad de las empresas sometidas a la normativa de dicho Territorio Histórico.

Por otra parte y a lo largo de estos años, tanto la Comisión Europea como, sobre todo, el Tribunal de Justicia de la Unión Europea, han contribuido a desarrollar una doctrina en torno a la capacidad de las autoridades fiscales de los Estados miembros para desarrollar sus normas sobre tributación directa de las empresas con pleno respeto a las libertades fundamentales contenidas en el Tratado de la Unión Europea y a fomentar la coordinación de las políticas fiscales en orden a limitar la competencia fiscal perjudicial, que puede derivarse de los sistemas tributarios de cada uno de los Estados miembros.

Asimismo, la competencia de las instituciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia para regular el Impuesto sobre Sociedades con medidas propias y diferentes a las vigentes en el territorio de régimen común desde la perspectiva del respeto a lo dispuesto en el artículo 87 del Tratado, ha quedado reforzada al afirmarse la capacidad para establecer medidas generales por entidades infraestatales que gocen de autonomía suficiente, en el sentido de lo dispuesto por el Tribunal de Justicia de la Unión Europea en su sentencia de 6 de septiembre de 2006, dictada en el asunto C-88/03 – República Portuguesa contra Comisión de las Comunidades Europeas.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Araua indarrean dagoenetik hamar urte baino gehiago bete diren honetan, hainbat faktorek gomendatuta (Zerga Zuzenbideak estatu kide guztietan gaur egun dituen joerak, Erkidegoko Zuzenbidearen bilakaera eta hark enpresen zuzeneko fiskalitatean zein egungo egoera ekonomiko eta sozialean duen eragina), foru arau hori zati batean aldatu egin behar da. Aldaketa partzial horrekin zenbait neurri ezarriko dira, eta neurrioren xedea, funtsean, ondokoa izango da: Lurralde Historiko honetako araudiaren pean dauden enpresen garapena eta lehiakortasuna sustatzea, kontuan izanda enpresok egun duten ingurunea globalizatutako ekonomia dela, kapitalen joan-etorri askea duena.

Xede horri begira, aldaketa honen neurri nabarmen gisa enpresen karga-tasa nominalak gutxitzea dela azpimarra daiteke: zergaren tasa orokorra ehuneko 28 izango da eta enpresa txikiak tasa berezia ehuneko 24 izango da; karga-tasa zerga-oinarri osari aplikatuko zaio. Aurreko guztiaz gainera, zergaren tasak horrenbeste murriztearekin enpresen jardun ekonomikoa bultzatu nahi da, eta Europar Batasunaren baitako joerak eskatutakoari erantzun nahi zaio: izan ere, Batasunean, azken sei urteotan, murriztu egin da batez besteko karga-tasa orokorra, eta egun ehuneko 25 ingurukoa da.

Arestian azaldutako neurri osatzeko, berraztertu, arrazionalizatu eta eguneratu egin dira zergaren araudian indarrean zeuden zerga-pizgarriak, enpresen jardunak egungo egoera ekonomiko eta sozialean eskatzen dituen beharrezko errealitateak egokitzeko, pizgarriok ahalik eta eraginkorrenak izan daitezkeen, eta zerga-gastua sustapen berezia merezi duten jardueretan kontzentratu da.

Horrekin bat, zerga honetan ohikoak izan diren zenbait kenkari kendu dira: edo kenkariok ezartzerakoan lortu nahi zen politika fiskaleko helburua lortu ez dutenak, edo gaurkoa ez bezalako egoera ekonomiko eta sozialean herri-agintarien aldetik laguntza eta bultzada behar izan zuten zenbait arlo —enplegua sortzea, esaterako— sustatzea helburu zutenak.

Horren ordez, gaur egun enpresen lehiakortasunerako funtsezkotzat jotzen diren jarduerak egitea sustatuko da. Haien artean, ondokioak nabarmendu daitezke: ikerketa, garapena eta berrikuntza teknologikoarekin zerkusua dutenak; garapen iraunkorra nahiz ingurumenaren zaintza eta hobekuntza eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzea helburu dutenak; edo lan merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak dituzten taldeei horretan lagunduko dietenak.

Zerga-tasa nominalak jaitzi eta horrekin batera enpresentzako pizgarri berriak proposatuko direla ikusita, ondoriozta dezakegu hurbildu egingo direla Sozietateen gaineko Zergako zergadunek jasaten duten tasa nominala eta karga-tasa efektiboa, gure inguruko herrialdeetako zerga-sistemek markatutako joerekin bat.

Aldaketa honetan biltzen diren zerga-politikako berezko neurrien zerrenda amaitzearen, azpimarratu behar da tratamendu berritzailea emango zaiela ondare sozietateak deritzenei. Horrela, gainditu egingo da martxoaren 26ko 5/2003 Foru Arauak ezartzen zuen arauketak eragin zuen zailtasun handia. Bada, tratamendu berri horrekin zergen ikuspuntutik tresna neutrala eskaini nahi da, pertsona fisikoek egokien irizten dieten moduan artikulatu ahal izan ditzaizen beren ondareak, jasaten duten zerga-karga arintzen lagunduko dieten egiturak eratu behar izan gabe.

Foru arau honek, halaber, zerga arloko zenbait neurri sartuko ditu zerga honetan, zerga arloko legedia Erkidegoko Zuzenbidera egokitu behar baita. Neurrioren artean, bi dira nabarmentzekoak.

Batetik, Kontseiluaren otsailaren 17ko 2005/19/EB Zuzentarauaren transposizioa. Zuzentarau horrek aldatu egin zituen uztailaren 23ko 90/434/EEE Zuzentarauaren (estatu kide ezberdinetako sozietateen artean egindako bat-egiteei, zatitzei, aktibo-ekarpeinei eta akzio-trukeei eta Europako sozietate batek edo Europako sozietate kooperatibo batek sozietatearen helbidea Europar Bata-

Quando se han cumplido más de diez años de vigencia de la Norma Foral 3/1996, de 26 de junio, del Impuesto sobre Sociedades, factores de diversa índole tales como las tendencias actuales del Derecho tributario en el conjunto de Estados miembros, la propia evolución del Derecho comunitario y su influencia en la fiscalidad directa de las empresas así como el escenario económico y social actual, aconsejan acometer una reforma parcial de la misma al objeto de introducir una serie de medidas tendentes fundamentalmente al fomento del desarrollo y la competitividad de las empresas sometidas a la normativa de este Territorio Histórico en el contexto de globalización económica y de libre circulación de capitales en el que se desarrolla su actividad.

Con esta finalidad, cabe destacar como medida más notoria de la presente reforma la reducción general de los tipos de gravamen nominales de las empresas estableciéndose el tipo general del impuesto en un 28 por 100 y el tipo específico para las pequeñas empresas en un 24 por 100, aplicable a la totalidad de su base imponible. Con esta reducción significativa de tipos impositivos se pretende, además de impulsar la actividad económica de las empresas, dar respuesta a una exigencia clara de las tendencias en el contexto de la Unión Europea, en el cual en los últimos seis años se ha reducido el tipo medio general de gravamen a porcentajes cercanos al 25 por 100.

Como medida complementaria a la anterior, se replantean, racionalizan y actualizan los incentivos fiscales vigentes en la normativa del impuesto para adecuarlos a la realidad de las necesidades que demanda la actividad empresarial en el contexto económico y social actual con el fin de conseguir que dichos incentivos sean lo más eficaces posible, concentrando el gasto fiscal en aquellas actividades que se consideran especialmente merecedoras de potenciación.

En este sentido, se suprimen algunas de las deducciones aplicables tradicionalmente en este impuesto, eliminando aquellas que, o bien no han logrado el objetivo de política fiscal pretendido con su establecimiento, o bien van dirigidas a la incentivación de áreas, como la creación de empleo, que en momentos económicos y sociales muy diferentes al de hoy necesitaron de impulso y apoyo por parte de los poderes públicos.

Como contrapartida, se refuerza el fomento de la realización de las actividades que se consideran fundamentales para la competitividad empresarial en el momento presente, destacando fundamentalmente las relacionadas con la investigación, el desarrollo y la innovación tecnológica, las tendentes a procurar el desarrollo sostenible, la conservación y mejora del medio ambiente y el aprovechamiento más eficiente de fuentes de energía o las que coadyuvan a la inserción en el mercado laboral de los colectivos con especiales dificultades para ello.

La conjunción de la bajada de tipos impositivos nominales y el nuevo planteamiento de los incentivos empresariales nos permite concluir en un acercamiento entre el tipo nominal y el tipo efectivo de gravamen en el Impuesto sobre Sociedades soportado por los contribuyentes, en línea con las tendencias marcadas por los sistemas tributarios de nuestro entorno.

Para finalizar con las medidas de política fiscal propias contenidas en la presente reforma, destaca el novedoso tratamiento de las denominadas sociedades patrimoniales, con el que se ha superado la extrema complejidad en que había derivado la regulación realizada por la Norma Foral 5/2003, de 26 de marzo, y a través del que se pretende ofrecer un instrumento neutral desde el punto de vista tributario para que las personas físicas puedan articular sus patrimonios de la forma que les resulte más conveniente, sin que deban preocuparse por el establecimiento de estructuras con el objetivo de reducir la carga tributaria que soportan.

La presente Norma Foral introduce, asimismo, una serie de medidas tributarias en este impuesto cuya razón de ser deriva de la obligada adaptación de la legislación tributaria al Derecho comunitario europeo, mereciendo una atención especial fundamentalmente dos de ellas.

Por un lado, la transposición de la Directiva 2005/19/CE del Consejo, de 17 de febrero, que ha venido a modificar determinados aspectos de la Directiva 90/434/CEE, de 23 de julio, relativa al régimen fiscal común aplicable a las fusiones, escisiones, aportaciones de activos y canjes de acciones realizados entre sociedades de diferentes Estados miembros, introduciéndose en la regu-

suneko estatu kide batetik beste estatu kide batera aldatzeari aplikatu beharreko zerga-arabide erkideari buruzkoa da) zenbait alderdi. Aipatu zuzentaraua —ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren VIII. tituluko X. kapituluari jasotzen da— sartu da. Horrek dakartzan egokitzapenen artean bat azpimarratu behar da, berritzailea baita: arabide horren aplikazio-eremuan sartu dira Europako sozietate anonimo batek edo Europako sozietate kooperatibo batek sozietatearen helbidea lekuz aldatzeko eragiketak.

Bestetik, arautze berria eman zaio pertsona eta entitate lotuek egindako eragiketei. Izan ere, arautze berri hori beharrezkoa da ez baitirudi indarrean dagoen Foru Arauko 16. artikuluan zehazten den arabideak guztiz errespetatzen dituenik Europar Batasuna eratzeko Itunak jasotzen duen kokatzeko askatasunak eragiten dituen eskakizunak, ez eta transferentzia-prezioak direla-eta aplikatzekoak diren Ekonomikiak Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundearen jarraibideak ere.

Hortaz, foru arau honek nahitaezko egiten du beti pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak merkatuko prezioetan baloratzea, eta zergadunak izango dira autoliquidazioa aurkezterakoan balorazio hori egin behar dutenak. Horrekin batera, foru arauak, Europar Batasunak Transferentzia Prezioen arloan egindako Batako Foroaren emaitzekin bat, dokumentazioaren inguruko baldintzak ezartzen ditu. Baldintza horiek guztiak bat egongo dira Kontseiluak eta 2006ko uztailaren 27ko Kontseiluan bildutako estatu kideetako gobernuen ordezkariak hartutako Ebazpenarekin; enpresa elkartuei Europar Batasunean transferentzia-prezioak direla-eta exijitzen zaien dokumentazioaren Jokabide Kodeari buruzkoa da ebazpen hori. (TPE EB).

Horren inguruko araudia garatzen denean zehaztuko da, ondorio horietarako, zein dokumentazio eduki beharko den Zerga Administrazioaren esku. Nolanahi ere, dokumentazioari buruzko bete-behar orokorra dela-eta salbuespenak edo aldaketak ere ezarri ahal izango dira, enpresen edo eragiketa lotuen ezaugarrien arabera, eta, bereziki, dokumentazioaren inguruko eginbeharrak betetzeak kostu neurrigabeak eragiten dituzten.

Pertsona edo entitate lotuen inguruko berrikuntza garrantzitsu horiekin lotuta, arlo honekin zerkusua duten aurretiazko administrazio-loturako prozedurak indartu dira eta arau-hausteen eta zigorraren arabide berezia ezarri da, zehaztu diren erregela berriak benetan aplikatzen direla bermatzearen.

